

EKP SOZIJETATEAK KUDEATZEN DITUEN HONDARRIBIA, BETERANOAK-HONDARRIBIA, ORIO, GETARIA, DEBA, MUTRIKU ETA BERMEOKO KIROL-PORTUETAKO ETA -KAIETAKO PORTU-INSTALAZIOETAN MARINELTZA, MANTENTZE, KONTROL ETA BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.

AURKIBIDEA

- 1. KLAUSULA.** AGIRI HONEN EDUKIA, XEDEA ETA ERAGINA.
- 2. KLAUSULA.** KONTRATUAREN IRAUPENA.
- 3. KLAUSULA.** ENPRESA KONTRATISTAREN SOLASKIDEA.
- 4. KLAUSULA.** KONTRATUA GAUZATZEKO KALKULATU DIREN ZERBITZU-ORDUAK.
 - 4.1 Beharrezko gutxieneko hornidura
 - 4.2. Denboraldiak eta zerbitzuak eskaintzea
- 5. KLAUSULA.** KONTRATU HONETARAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.
- 6. KLAUSULA.** KONTRATU HONETARAKO ZIGOR SISTEMA.
- 7. KLAUSULA.** KONTRATU HONETARAKO HOBARI SISTEMA.
- 8. KLAUSULA.** KONTRATUA GAUZATZEA.
- 9. KLAUSULA.** MARINELTZA, MANTENTZE, KONTROL ETA BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUAREN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK.
- 10. KLAUSULA.** KUDEAKETA SISTEMA BATERATUA EGOKITZEA

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA.** LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO OINARRIZKO PROIEKTUA.

1. KLAUSULA. AGIRI HONEN EDUKIA, XEDEA ETA ERAGINA.

Edukia

EKPren administrazio-kontseiluak onartuko du EKPk kudeatzen dituen Hondarribia, Beteranoak-Hondarribia, Donostia, Orio, Getaria, Deba, Mutriku eta Bermeoko kirol-portuetako eta kirol-kaietako portu-instalazioen marineltza, mantentze, kontrol eta bezeroen arretarako zerbitzuak kontratatzeke baldintzen eta preskripzio teknikoek menderatutako agiria.

Agiriaren xedea

Agiri honen xedea da kontratu hau emateko derrigorrezkoak diren baldintza teknikoak eta eskakizunak definitzea, baita enpresa kontratistak aipatutako baldintza guztiak onartzea ere.

Kontratuaren eragina

Zerbitzuaren eskaintza EKPk kudeatzen dituen portu guztientzat izango da:

- 1- Bermeoko kirol-kaia.
- 2- Mutrikuko kirol-kaia.
- 3- Debako kirol-portua.
- 4- Getariko kirol-kaia.
- 5- Orioko kirol-portua.
- 6- Donostiako kirol-kaia.
- 7- Hondarribiko kirol-portua.
- 8- Beteranoak-Hondarribiko kirol-kaia.

2. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratu honen hasierako epea BI URTEKOA izango da eta kontratu honen Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritako terminoetan luzatu ahal izango da. Epea 2015eko martxoaren 1etik aurrera hasiko da zenbatzen.

3. KLAUSULA. ENPRESA KONTRATISTAREN SOLASKIDEA.

- 1- Lanak koordinatzeko, enpresa kontratistak pertsona arduradun bat izendatuko du eta enpresa kontratugilearen aurrean ordezkatuko du, zerbitzua eskaintzearekiko kostu osagarriak izan gabe.
- 2- Solaskidea ez da izango kontratu honen xede diren marineltza, mantentze, kontrol eta bezeroen arretarako zerbitzuetako langile arduradunen taldeko kide.
- 3- Kontratu hasi aurretik, solaskideak EKPk arduradunekin egingo diren aldiroko bisiten eta bileren egutegia adostuko du enpresa kontratugilearekin; a priori, hamabost egunean behin egingo dira. Bilera eta bisita guztietan adostutakoa idatziz jasoa geldituko da eta akta idatziko da. Hori bertaratutakoek onartu eta sinatu beharko dute.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Gainera, lanen abiada egokirako komunikazio iraunkor irekia mantenduko da eta edozein alde behar izanez gero, programatutako bileren artean beharrezko harremanak mantenduko dira.

Bilerak eta bisitak garatzen ari direnean, enpresa kontratistaren ordezkariak zehaztutako dokumentu-euskarriak entregatuko dituzte eta EKPko arduradunekin honako gaiak landuko dira:

- a. Laneko parteak.
- b. Ordutegiak eta zeregin bakoitzerako esleitutako langileak.
- c. Gertakarien jarraipena.
- d. Erabiltzaileen kexak edo erreklamazioak.
- e. Ekipoen narriadura edo matxura.
- f. Ekipo eta instalazioak ikuskatzea eta mantentzea.
- g. Enpresa-jardueren koordinazioa.
- h. Marinelen prestakuntza-programaren jarraipena.
- i. Dagokionean, langileen autoebaluazioaren emaitzak.
- j. Dagokionean, larrialdi-simulakroen emaitzak.

Solaskidea izango da enpresa kontratistaren arduradun zuzena EKPre eskaeren eta eskakizunen aurrean eta berak ezarriko ditu langileen lan-jarraibideak, berak emango du “Harrerako eskuliburua” eta berak diseinatuko du langileen prestakuntza-plana, EKPko arduradunekin batera.

Era berean, bera arduratuko da langileei egindako ebaluazioen emaitzen arabera EKPk ikusten dituen beharrak martxan jartzeaz (prestakuntza, motibazioa, ohartarazpenak, espedienteak eta abar), eta bera izango da bere kontura dituen langile guztiei jarraibideak helarazteko arduradun zuzena.

4. KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEKO KALKULATU DIREN ZERBITZU-ORDUAK.

4.1.- Beharrezko gutxieneko hornidura

Zerbitzua behar bezala eskaintzeko, enpresa kontratistak portu edo kai bakoitzean honakoak mantendu beharko ditu:

Bermeoko kirol-kaia: Amarratzeak: 350 / luzera max. 8 m Ainguratzeak: 30 / luzera max. 16 m

Langile marinela harreragilearen zerbitzuari dagokionez, urtean 1.341,4 ordu.

Mutriku eta Debako kirol-kaiak: Amarratzeak: 301 eta 68 / luzera max. 14 m eta 8 m, hurrenez hurren.

Langile marinela harreragilearen zerbitzuari dagokionez, urtean 1.686,6 ordu.

Getariko kirol-kaia: Amarratzeak: 286 / luzera max. 14 m

Langile marinela zerbitzuari dagokionez, urtean 2.195 ordu.

Langile marinela harreragilearen zerbitzuari dagokionez, urtean 1.697 ordu.

Marineltzaren langile arduradunaren zerbitzuari dagokionez, urtean 1.697 ordu.

Orioko kirol-portua: Amarratzeak: 296 / luzera max. 12 m

Langile marinelen zerbitzuari dagokionez, urtean 4.119 ordu.
Administrari-langileen zerbitzuari dagokionez, urtean 1.697 ordu.

Donostiako kirol-portua: Amarratzeak: 375 / luzera max. 10 m

Langile marinelen harreragilearen zerbitzuari dagokionez, urtean 1.697 ordu.
Langile marinelen zerbitzuari dagokionez, urtean 491 ordu.

Hondarribiko kirol-portua: Amarratzeak: 672 / luzera max. 18 m

Langile marinelen zerbitzuari dagokionez, urtean 5.806 ordu.
Marinel arduradunaren zerbitzuari dagokionez, urtean 1.697 ordu.
Administrari-langileen zerbitzuari dagokionez, urtean 630 ordu.

Orioko portuko administrariak enpresa kontratugileak zehazten dituen Bermeo, Mutriku, Deba eta Donostiako kaien administrazioari dagozkion zereginak bere gain hartuko ditu. Era berean, gainerako portuetan zeregin horietan lagunduko du, beharrezkoa izanez gero.

Marineltzaren arduradunen zerbitzuari dagozkion ordu guztiak urtean: 3.394 ordu

Marinelen zerbitzuari dagozkion ordu guztiak urtean: 12.611 ordu

Marinel harreragileen zerbitzuari dagozkion ordu guztiak urtean: 6.422 ordu

Administrari-langileen zerbitzuari dagokion ordu guztiak urtean: 2.327 ordu

Enpresa kontratistak zerbitzua eskaintzen duen langileen artean izan daitezkeen ez-egoteak estaliko ditu, ez-egoteak gertatzeko arrazoia edozein dela (oporrak, laneko bajak, baimenak, absentziak eta abar).

4.2. Denboraldiak eta zerbitzuak eskaintzea.

Kontratutako zerbitzua astelehenetik igandera bitartean, jaiegunetan barne (abenduen 25ean, urtarilaren 1ean eta urtarilaren 6an izan ezik), eskainiko da, ondoren zehaztutako portu eta zerbitzu-denboraldien arabera. Ordutegia enpresa kontratugileak eta enpresa kontratistak kontratua legezatu baino lehen zehaztuko dute, enpresa kontratistak bere eskaintzan aurkeztutako proposamenean oinarrituta.

Xede horrez, hurrengo gutxieneko zerbitzuaren ordu-kopurua zehazten da, zerbitzu-denboraldien eta portuaren arabera:

Bermeoko kirol-portua: Amarratzeak: 350 / luzera max. 8 m Ainguratzeak: 30 / luzera max. 16 m

Behe-denboraldia: 09/1etik 06/30era

Astean marinel/harreragilearen zerbitzuaren 16 ordu, 4 egunetan banatuta.

Goi-denboraldia: 07/1etik 08/31ra

Marinel/harreragilearen zerbitzua asteko egun guztietan, igandeetan eta jaiegunetan barne.

Mutriku eta Debako kirol-portuak: Amarratzeak: 301 eta 68 / luzera max. 14 m eta 8 m, hurrenez hurren.

Behe-denboraldia: 09/1etik 06/30era

Astean marinela/harreragilearen zerbitzuaren 16 ordu, honako moduan banatuak: 4 egun Mutriku eta astean 8 ordu Deban.

Goi-denboraldia: 07/1etik 08/31ra

Marinela/harreragilearen zerbitzua asteko egun guztietan, igandeetan eta jaiegunetan barne (horietatik astean 8 ordu Deban egingo dira).

Getariko kirol-kaia: Amarratzeak: 286 / luzera max. 14 m

Marineltzaren zerbitzua (marinela, marinela arduraduna edota marinela harreragilea) egunero (astelehen/igande), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Behe-denboraldia:

09/1etik 04/15era

Marineltzaren zerbitzuari (marinela harreragilea edota marinela) 1.362 ordu dagozkio (1).

Denboraldi ertain altua eta goi-denboraldia:

04/16tik 06/15era eta 06/16tik 08/31ra, hurrenez hurren.

Marineltzaren zerbitzuari (marinela harreragilea edota marinela) 782 ordu eta 1.748 ordu dagozkio, hurrenez hurren (1).

- (1) Marinela arduradunaren zerbitzuari dagozkion 1.697 orduak ez daude sartuak. Horiek urtean zehar eskainiko dira.

Orioko kirol-portua: Amarratzeak: 296 / luzera max. 12 m

Marineltzaren zerbitzua (marinela) egunero (astelehen/igande), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Administrari-zerbitzua astelehenetik larunbatera goizez, jaiegunetan kanpo.

Behe-denboraldia:

09/1etik 04/15era

Marineltzaren zerbitzuari (marinela) dagozkion orduak: 1.589.

Denboraldi ertain altua eta goi-denboraldia:

04/16tik 06/15era eta 06/16tik 08/31ra, hurrenez hurren.

Marineltzaren zerbitzuari (marinela) dagozkion orduak: 782 eta 1.748, hurrenez hurren.

Donostiako kirol-portua: Amarratzeak: 375 / luzera max. 10 m

Behe-denboraldia:

09/1etik 06/30era

Marineltzaren zerbitzuari (marinela/harreragilea) dagozkion orduak: 1.656.

Goi-denboraldia:

07/1etik 08/31ra

Marineltzaren zerbitzuari (marinela harreragilea eta marinela) dagozkion orduak: 532.

Hondarribiko kirol-portua: Amarratzeak: 672 / luzera max. 18 m

Marineltzaren zerbitzua (marinela edota marinela arduraduna) egunero (astelehen/igande), jaiegunak barne, abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an izan ezik.

Administrari-zerbitzua egunero (astelehen/igande) eskainiko da, jaiegunetan barne, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra.

Behe-denboraldia:

09/1etik 04/15era

Marineltzaren zerbitzuari (marinela) dagozkion orduak: 2.724 (1).

Denboraldi ertain altua eta goi-denboraldia:

04/16tik 05/31ra eta 06/1etik 08/31ra, hurrenez hurren.

Marineltzaren zerbitzuari (marinela) dagozkion orduak: 966 eta 2.116, hurrenez hurren (1).

Hondarribirako zehaztutako ordutegiaren barruan, Beteranoak-Hondarribiko kaiari arreta eskainiko zaio, enpresa kontratugilearen eta enpresa kontratistaren artean adostutako ordutegi eta maiztasunarekin.

- (1) Marinela arduradunaren zerbitzuari dagozkion 1.697 orduak ez daude sartuak. Horiek urtean zehar eskainiko dira.

Kontratutako zerbitzua eskaintzeko ordutegia eguneko ordu-tartearen barruan (6:00etatik 22:00etara) zehaztuko da eta ordu-tartea 5:00etatik 23:00etara zabaldu ahal izango da denboraldi ertain altuan eta goi-denboraldian.

Zerbitzuak eskaintzen diren ordutegia zehazteko, urteko denboraldi desberdinetan eguzki-argiaren orduak kontuan hartuko dira eta ahalik eta gehienez moldatu beharko du ordutegiak horietara.

Langileek oporrez portu eta kai bakoitzean goi-denboralditik edo denboraldi ertain altutik kanpo gozatuko dute.

Portuen hurbiltasun geografikoaren arabera, enpresa kontratistak kontratu honetara esleitutako giza taldeko langile bat edo gehiago izendatuko ditu guardia-erretan gisa (24 ordu). Langile horiek egoera berezi eta ezohikoetan jarduteko beharrezkoa den prestakuntza edukiko dute eta eskaintzan adieraziko dira langile horiei dagozkien betebeharrak (erantzuteko denbora eta hainbat) eta eskubideak (kontraprestazioa eta abar).

Enpresa kontratistak bere eskaintzan aurkeztutako lan-programaren arabera (egutegia, ordutegiak, txandak, langileak, zereginak eta abar) eskainiko dira zerbitzuak eta enpresa kontratugilearekin adostuko da aipatutako lan-programa, kontratua formalizatu aurretik.

Kontratugileak **gutxienez 24 orduko aurrerapenez zerbitzu bereziak edo ohizkanpokoak** behar baditu, enpresa kontratistak **eskaintzan proposatutako orduko batez besteko prezioan** eskaini beharko ditu, hau da, beste kontzeptu berezi batzuk kontuan hartu gabe, besteak beste, kategoria, antzintasuna, garraioa, plus bereziak, industria-irabazia, etab. Esleipendunak eskaintzan salbuespenezko zerbitzuei arreta eskaintzeko proposatutako gehieneko erantzute-denbora bete beharko du, bai ordutegi arruntetan, baita ohiz kanpokoetan (gauetan eta jaiegunetan) ere.

5. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.

Kontratataren betebeharra izango da bere kontratuko langileen oinarritzko prestakuntza-programa betetzea, baldintzen agiri honen I. ERANSKINEAN ezartzen denaren arabera, eta enpresa kontratugileak eta kontratistak adosten duten epearen barruan eta moduan egingo du.

Kontratu honek irauten duen bitartean lanpostu batean sartzen diren langile guztiek I. ERANSKINEAN ezarritako oinarritzko prestakuntza jasoko dute, enpresa kontratugileak eta kontratistak adosten duten epearen barruan eta moduan, curriculumaren eta prestakuntza-beharren arabera. Horrez gain, enpresa esleipendunaren solaskideak harrerako esku-liburu bat emango du eta bertan zehaztuko dira lan, segurtasun, laneko arriskuen prebentzio, ingurumen-neurri, bezeroen arreta eta abarrekin erlazionatutako jarraibide guztiak, kasuan-kasuan lana ondo garatzeko beharrezkoak direnak.

Era berean, Euskadiko Kirol Portua, SAK une bakoitzean eskaini beharreko prestakuntza espezifikoa erabaki ahal izango du, bere irizpidea jarraituz eta bere helburu estrategikoen eta kudeaketa-helburuen arabera; era berean, aipatutako prestakuntza eskainiko duen enpresa aukeratu edo erabaki ahal izango du eta enpresa kontratataren betebeharra izango da aipatutako prestakuntza bere kontura eskaintzea. Enpresa kontratugileak eta kontratistak adostuko dute prestakuntza eskaintzeko epea eta modua, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Kontratutako enpresak larrialdi-simulakroen urteko plan bat landu beharko du, langileak trebatzeko.

6. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO ZIGOR SISTEMA.

Zigor-sistema bat ezarri da kontratu honetarako, kontratua arautzen duten klausula administratibo partikularren pleguan xedatutakoaren arabera.

7. KLAUSULA. KONTRATU HONETARAKO HOBARI SISTEMA.

Enpresa kontratugileak hobari-sistema bat ezarri ahal izango du kontratu honetarako.

Enpresa kontratugileak ezartzen dituen urteko helburuen betetzearen arabera emango dira hobariak. Hobarien aplikazioa eta hobariak emateko terminoak eta baldintzak enpresa kontratistari denbora nahikoarekin jakinaraziko zaizkio, jakinaren gainean egoteko eta kontuan hartzeko.

8. KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEA.

Kirol-portuetan marinetza, mantentze, kontrol eta bezeroen arretarako zerbitzuen eskaintzaren barruan sartzen dira dokumentu honen hamargarren klausulan definitutako zeregin guztiak.

Zerbitzuak Euskadiko Kirol Portua, SAK kudeatzen dituen Hondarribia, Orio eta Debako kirol-portuetako instalazioetan eta Beteranoak-Hondarribia, Donostia, Getaria, Mutriku eta Bermeoko kirol-kaietan eskainiko dira; hala ere, enpresa kontratugileak eskatzen badu, enpresa kontratistak portu edo kai jakin baterako kontratatutako langileek beste batean laguntza-zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte eta aldi baterako eta zerbitzu jakin batzuetara

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

lekuz aldatu ahal izango dira langile horiek. Aipatutako zerbitzuen ondoriozko joan-etorri, dieta eta abarren gastuak aurkeztutako eskaintza ekonomikoan barne hartuko dira. Enpresa kontratugileak ez du kopuru gehigarrik ordainduko kontzeptu horregatik.

Enpresa kontratugileak kontratuaren xede diren zerbitzuetan egiten dituen **zabalkuntzak edo aldaketak** enpresa kontratistak proposatu duen orduko batez besteko prezioaren arabera kalkulatuko dira, eta, beraz, ez dira kontuan hartuko beste kontzeptu espezifiko batzuk, hala nola: langilearen kategoria, langilearen antzinasuna, garraioa, plus espezifikoak, industria-hobaria eta abar.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistari egokitzat jotzen dituen jarraibideak eta gomendioak emango dizkio, lanak egiteko modua edo kontratu honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko modua zehaztera bidean.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistaren eskura jarriko ditu kontratatutako zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren ondasunak, makinak, bitartekoak eta tresneria. Kontratuaren indarraldia amaitzean, kontratistak guztiak erabiltzeko prest itzuli beharko ditu; salbuespena izango da horien matxura, narriadura edo hondatzea enpresa kontratugileak baieztatu eta ontzat ematen baditu.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du bere langileek Euskadiko Kirol Portua, SArean ondasunetan gerta daitezkeen kalteen ondorioz sortzen diren fakturak ordaintzeko, betiere langileei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik gertatu badira (makinak eta tresneria gaizki erabiltzeagatik, zerbitzua gaizki eskaintzeagatik, galtzeagatik...)

Derrigorrez erabili behar dute langileek uniformea. Enpresa kontratugileak, indarrean dagoen araudiaren arabera, uniformearen ezaugarriak eta bertan jarriko den logoa erabakiko ditu eta kontratistaren kontura izango da zerbitzuko langileen laneko arropa garbitzea eta itxura ona gordetzen dela zaindu beharko du.

Zerbitzua eskaintzen duten langileek erabiltzaileei arreta atsegina eta zuzena eskainiko diote. Halaber, langileen arteko harremanak eta jarrerak atseginak eta egokiak izango direla arduratuko dira.

Kontratua hasi aurretik eta amaitu eta gero, material, bitarteko, tresna, altzari eta ekipo teknikoaren inbentario bat egingo da. Zerbitzuak ondo funtzionatzeko eta laneko segurtasuna eta osasuna betetzeko, enpresa kontratistak material gehigarria behar dela uste badu, edo lokalak egokitu behar direla uste badu, enpresa kontratugilearen baimena lortu beharko du. Horrela bada, enpresa kontratistak bere kontura jarriko edo egingo du eta portu-instalazioetan geratuko da behin kontratua amaitu eta gero.

Era berean, kontratua hasi aurretik, enpresa kontratistari kontratuaren mendeko portu eta kaien planoak eta funtzionamenduari buruzko araudiak emango zaizkio.

Langileek jarraibide eta ohar batzuk bete beharko dituzte, zerbitzuari irudi korporatibo egokia ematen zaiola eta zerbitzua eraginkortasunez gauzatzen dela ziurtatzeko. Hauek dira jarraibideak:

- Txukuntasuna, garbi eta behar den bezala unformatua egotea.
- Portuko jarduerarekin lan-harremana duten pertsonen tratua egokia ematea, baita zerbitzua eskaintzen den kirol-portuetako erabiltzaileei zein jendeari oro har.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- Itxura egokia lanpostuan, utzikeria ekidin behar da.
- Zorroztasuna ezarritako arauak betetzean (ustiapen-araudia, kudeaketa-prozedurak, ingurumen-neurriak, laneko segurtasuna eta osasuna, erabiltzaileen segurtasuna eta abar).
- Puntueltasuna:
- Funtzioak garatzen diren instalazioei, barrutiei eta lan-zentroeiei buruzko edozein informazio agertzeko erabateko debekua; gauza bera enpresa kontratugileak garatzen duen jarduerari buruz.
- Kontratu honen xede diren langileek ezingo dute lanpostua utzi, arrazoi justifikatuaren kasuan izan ezik; gainera, arrazoi hori enpresa kontratugilearen arduraduneri jakinarazi beharko diete lehenago eta nahiko aurrerapenez. Lanpostu hutsak ezaugarri bereko beste langile batzuekin beteko dira.
- Lanpostuak eta zerbitzuak eskaintzen diren guneak txukun eta garbi mantentzea.
- Oro har, erakunde kontratugilearen irudia kalte dezaketen langileen jarduerak ekiditea.

Enpresa kontratugileak enpresa kontratistari eskatu ahal dio bere ustez jarrera edo portaera egokia ez du(t)en langilea(k) ordezkatzeko; hori horrela bada, idatzizko errekerimendua egiten denetik gehienez ere 48 orduko epean egin beharko da ordezkapena.

Enpresa kontratistak kontratu hau gauzatzeko kontratatutako pertsonak ordezkatzeko edo kalera botatzeko, enpresa kontratugilearen zuzendaritzaren berariazko adostasuna lortu beharko du. Horretarako, enpresa kontratistak idatziz jakinaraziko dio bere asmoa enpresa kontratugilearen zuzendaritzari eta erabakia justifikatzen duten arrazoiak eta erabakia gauzatzeko data jakinarazi beharko dizkio, halaber.

Pertsona berriak kontratatuzeko enpresa kontratugilean oniritzia lortu beharko da. Horretarako, enpresa kontratistak idatziz jakinaraziko dio kontratatu beharreko pertsonaren profila eta kontratazioaren baldintzak enpresa kontratugilearen zuzendaritzari, eta denbora nahikoarekin egin beharko du.

Kontratu honetara atxikitako enpresa kontratistaren langileek ezin izango dute hirugarrenentzat egin kontratu honen babespean garatzen duten jarduerarekin eta/edo kirol-sektore nautikoarekin erlazionatutako bestelako lanik, dagokien laneko ordutegiaren barruan zein ordutegitik kanpo, modu independentean zein beste enpresa baten bitartez. Adibidez: arrantzatze edo nabigatzeko ontzien eta trepetxuen zaintza, mantentzea, konponketa, garbiketa, arrantzatze edo nabigatzeko materialak edo gaiak alokatzea edo saltzea, ontziak mantentzeko edo konpontzeko ekipoak edo materiala alokatzea edo saltzea eta abar; salbuespena izango da Euskadiko Kirol Portu, SAK espresuki baimentzea. Bateriaezintasuna duen langileari zerbitzutik bereizi beharko zaio. Euskadiko Kirol Portua, SAren zuzendaritza izango da puntu hori arbitratzeko arduradun bakarra, desadostasunik egonez gero.

9. KLAUSULA. MARINELTZA, MANTENTZE, KONTROL ETA BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA.

Enpresa kontratistak kontratatutako giza taldeak eskainiko dituen zerbitzuak bi multzotan bereizi dira: Marineltza eta Administrazioa. Marineltzaren zerbitzua, aldi berean, hiru azpimultzotan banatzen da: marinela, marinel-harreragilea eta marinel arduraduna.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Marinel-harreragilearen azpimultzora esleitutako giza taldeak zerbitzu bakoitzari (marineltza eta administrazioa) dagozkion zereginak beteko ditu, eskaini beharreko zerbitzuaren beharren arabera.

Marinel-arduradunaren azpimultzora esleitutako giza taldeak, zerbitzuaren arabera marinelaren eta marinel-harreragilearen zereginak egiteaz gain, honako zeregin gehigarri hauek egingo ditu.

- Marineltzako lanak banatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Marineltzak kontratua gauzatzeko aplikatu daitezkeen araudia betearaztea.
- Enpresa kontratugileak eskatzen dituen marinel-tza-zerbitzuari buruzko dokumentuak eta formularioak lantzea eta/edo betetzea.

Multzoo bakoitzak honako zeregin hauek egingo ditu:

Marineltza:

- Pantalanak eta nasak eta horien elementu guztiak kontserbatzea, garbitzea eta mantentzea.
- Bideak, lorategi-zonak, merkataritza-zona, zona teknikoa, ontzitegia, arrapalak, eskailerak, Kapitaintza, gasolindegia eta horietan guztietan dauden elementuak kontserbatzea, garbitzea eta mantentzea.
- Ur-geruza garbitzea.
- Paper-ontziak eta edukiontziak egunero biltzea.
- Komunak garbitzea. Elementu sanitario guztiak, bai eta zoruak eta paretak ere, ardura handiz garbitzen direla ziurtatzea. Eta komunitako kontsumigarriak aldatzeaz arduratzea, beharrenez arabera (xaboia, komuneko papera, eskuak lehertzeko paper-zatiak eta abar).
- Ontzietako gelak eta bestelako bulegoak garbitzea eta txukuntzea. Tresna guztiak mantentzea eta kontrolatzea: sokak, estatxak, defentsak, linternak eta abar.
- Zona hauek kontrolatzea:
 - Pantalanak / ur-geruza
 - Bulegoa / Kapitaintza
 - Gasolindegia
 - Aparkalekua
 - Zona teknikoa, ontzitegia eta merkataritza-zona
 - Porturako sarrera. (Itsasokoa / Lehorrekoa)
- Karenatze-eremuaren erabilera kudeatzea (garabia, Travel-lift, euskarriak, arrapala eta abar), kasuan-kasuan dagozkion prozeduraren arabera; eta zerbitzuko aginduak betetzea.
- Desordena egoteko edo arazoak egoteko arriskurik ikusiz gero, eskumeneko agintaritzako agenteekin harremanetan jartzeaz eta jakinarazteaz arduratuko dira.
- Portuko zerbitzu-ontziak mantentzea, garbitzea, xukatzea, gainbegiratzea eta ikuskatzea; une oro erabiltzeko prest egongo dira.
- Ontziak eta ibilgailuak zaintzea eta kontrolatzea eta izan daitezkeen gorabeherak konpontzeko esku hartzea.
- Suteen aurkako sistemak, segurtasun-sistemak, kutsaduraren aurkakoak eta abar gainbegiratzea, mantentzea eta horien erabileran trebatzea.
- Makina, tresneria, instalazio eta garraio-elementu guztiak erabiltzea, mantentzea, gainbegiratzea eta zaintzea.
- Sarrera mugatuko zonetan pertsonen kontrolaz arduratzea: kapitaintza, pantalanak, zona teknikoa, karenatze-zona, komunak, gasolindegia eta abar.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- Jendaurreko arreta eta informazioa.
- Erabiltzaileari laguntzea eta gure instalazioak erabiltzean izan daitezkeen arazoak konpontzea.
- Igarotzen diren ontzien harrera eta arreta eta informazioa.
- Etengabeko arreta VHF irratan.
- Laguntza eskaintzea arazoak eta larrialdiak daudenean.
- Barne Araubideko Erregelamendua eta Poliziarena aplikatzea eta betearaztea, baita portuan aplikatzekoa den beste edozein araudi ere.
- Sarrerako itsasargiak mantentzea eta kontrolatzea.
- Euste-horma zaintzea eta mantentzea.
- Telefonozko arreta.
- Gertakariak erregistratzea.
- Karenatze-zona erabiltzeko erresebak (garabia, Travelift, euskarriak)
- Ibilgailuak sartzeko langa zaintzea.
- Eguneroko parte meteorologiakoa eta ohartarazpen bereziak.
- Erabiltzaileei ohar garrantzitsuak jakinaraztea.
- Jendearen erreklamazioak, kexak, iradokizunak eta bestelako informazioak jasotzea eta bideratzea.
- Lan-partea ezarritako jarraibideen arabera betetzea.
- Zerbitzugintza behar den bezala eskaintzeko behar den beste edozein zerbitzu.

Administrazioa:

- Jendaurreko arreta
- Informatika-programa kudeatzea
- Fakturazioa eta ez ordaintzeak kudeatzea, dagokien prozeduraren arabera
- Zerbitzuen kobrantzak kudeatzea, dagokien prozeduren arabera.
- Dokumentazioa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera
- Gasolindegia kudeatzea
- Kutxa kontrolatzea eta kudeatzea
- VHF irratiaren arreta.
- Telefonozko arreta.
- Web-orriaren arreta (kontaktuak, eskaerak eta abar)
- Eguneroko parteak gainbegiratzea
- Soken eta itxarote-zerrenden baimentzea/alokairua kudeatzea, dagokien prozeduraren arabera
- Plaza eta tarifen informazioa
- Enpresa-jardueren koordinazioa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera
- Karenatze-eremuaren erabilera kudeatzea (garabia, Travel-lift, euskarriak, arrapala eta abar), dagokion prozeduraren arabera
- Ontzi/soken aldaketa kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera
- Igarotzea kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera
- Erosketak kudeatzea, dagokion prozeduraren arabera
- Gertakariak erregistratzea.
- Objektu galduen liburua eta mezularitza-liburua, mezuak eta abar
- Ibilgailuak sartzeko langa zaintzea.
- Eguneroko parte meteorologiakoa eta ohartarazpen bereziak.
- Erabiltzaileei ohar garrantzitsuak jakinaraztea.
- Barne Araubideko Erregelamendua eta Poliziarena aplikatzea eta betearaztea, baita portuan aplikatzekoa den beste edozein araudi ere.
- Jendearen erreklamazioak, kexak, iradokizunak eta bestelako informazioak jasotzea eta bideratzea. Zerbitzua behar den bezala eskaintzeko beharrezkoa den beste edozein zerbitzu.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

11. KLAUSULA. ENPRESA KONTRATUGILEAREN KUDEAKETA SISTEMA BATERATURA EGOKITZEA.

Enpresa kontratistak enpresa kontratugileak ezarritako kudeaketa-sistema bateratuaren arabera (kalitatea ISO 9001:2008, ingurumena 14001:2004, gobernatze arduratsua, euskara-plana, berdintasun-plana eta hainbat) eskainiko ditu zerbitzuak; zentzu horretan, kontratu honetara atxikitako langile guztiak aipatutako sistemako jarraibideak betetzen dituztela ziurtatuko du.

Horretarako, Euskadiko Kirol Portua, SAK zerbitzua behar den bezala garatzeko esku-liburuak, prozedurak, jarraibide teknikoak eta abar emango ditu kontratua hastean.

Gasteiz, 2014ko abenduaren 5a

EUSKADIKO KIROL PORTUA, SAKo ZUZENDARIA

EDURNE EGAÑA MANTEROLA